

LEZO / Andreone Udal Liburutegiaren lanak abendura arte ez dituzte bukatuko

Atzerapenengatik barkamena eskatu du Udalak; eraberritze lanak egingo dituzte

ERIK GARTZIA

Uste baino beranduago bukatuko dituzte Andreone Udal Liburutegia eraberritzeko lanak. Lanak pasa den irailerako bukatuta egotea aurreikusitakoa zuen Lezoko Udalak, baina arazo batzuk direla eta, datorren abendura arte atzeratuko da liburutegiaren eraberritzea. Horregatik, Udalak barkamena eskatu die herritarrei. Lander Zurutuza liburuzainak azaldu duenez, "Lope Isasti eta Jon Garbizu literatura sariak banatzeko berriro ere irekitzea da gure asmoa, abenduko zubiaren ondoren, hain zuzen ere.

Lanak atzeratzeko arrazoiak bi izan dira, Udalaren arabera. Alde batetik, administrazio tramiteak. Bestetik, lanak egiten ari den enpresaren materiala iristea atzeratzen ari da.

Hainbat aldaketa

Andreone Udal Liburutegia egokitzeak hainbat gauza aldatzea suposatuko du. Kaletik hasita, liburutegira sartzeko atea aldatu dute. Orain albo batean dagoena izango da sarrera atea, maldan gora igotzen ikusten den atea beharrean. Mugikor-tasun arazoak dituztenentzako arrapala jarri dute, lehen eskailerak baitzeuden.

Sartu eta berehala liburuzainaren tokia aurkituko du erabiltzaileak. Lehen haurrentzako solairuaren erdian zegoen mahaia. "Harrera egiteko egokiagoa izango da kokapen berria, argibideak-eta emateko. Lehen, liburutegi erdian egonda, sartzen zen jende askok ez zekien nora jo. Lanak bukatzean argiago geratuko da dena, esan du Zurutuza.

Beheko solairuan haurrentzako eta gaztetxoentzako liburutegia egongo da, lehen bezala. Hala ere, bi zatitan banatu dute. Horrela, 0 eta 6 urte bitarteko haurrentzako gela bat egingo dute, adinari egokitutako ekipamenduekin. Beheko solairuaren gainontzeko espazioa 7 eta 14 urtekoentzako izango da. Txikiarentzako egindako gelarekin ("haurtxotekarekin), sortzen duten zarata isolatzea da helburua.

Sotoan biltegia jarriko dute eta abendutik aurrera ipuin kontalariak haurtxotekan ariko dira, sotoan beharrean. Lehen solairua eta bigarrena helduentzako izango dira. Bi solairu horietara oinez igo ezin dutenek aulki mekaniko bat erabil ahal izango dute.

KZgunearentzako toki bila

KZgunea lehen Andreoneko bigarren solairuan zegoen, baina eraberritze lanekin Erreterria-Oreretako Olibet auzokora aldatu dute herriko azpiegitura. Han jasoko dituzte ikasleek ikastaroak. Udaletik jakinarazi dutenez, ez dute lokalik KZgunearentzat. Hala ere, Interneten nabigatzeko aukera bermatuko dute. Bost ordenagailu berri erosi dituzte eta guztira 11 izango dira goiko solairuan.

Bestalde, utzitako liburuak itzultzeko epea automatikoki atzeratuko dela jakinarazi dute. Gainera, gogorarazi dutenez, liburutegiaren erabiltzaile karneta duen edonork inguruko edozein liburutegitan har ditzake liburuak maileguan: Erreterria-Oreretako, Pasaiako edo Oiartzungo liburutegietan, adibidez.